

1-BALIO PROPOSAMENA

Jakiak modu ezberdin batean banatuko dituen enpresa bat gara, hauzasko entregan zentratutakoak. Bezeroak ez du jakingo zehazki zer kontsumitzen hari den paketetxo pertsonalizatua zabaldu arte. Honen bidez jateko zer prestatzearen ziurgabetasunari aurre egingo diogu bezeroei hezkuntza kulinario bat ematen diegun bitartean.

Horrez gain, gure bezeroek gure zerbitzuaren bidez jaki bereziak eskura izango dituzte, haiek kontsumitutako egoera berezi batean, oparitzeko edo maitatzen duten horiekin partekatzeko. Aldi berean, tabernak eta jatetxeak gure bezeroak ere badirenez (haiek publizitatzeko baititugu) haien publizitatzeko beharra (egotekotan) asetuko genuke. Bezeroari jakinaraziko baitzaio modu detailatu eta estetiko batean jaten hari direnaz eta hornitzailearen historiaz. Honela, negozio txikiek bezeroak eta prestigioa eskura dezakete.

